

Zer erremedio!

Idoia Carramiñana

Irudiak: Iker Orueta

Bizkaldatz Txikia

X. Haur eta Gazteen
Literatura Saria

2023-2024

* Oinarriak barrualdean



© Idoia Carramiñana Miranda, 2023

© Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia

Antolatzailea: Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Irudiak: Iker Orueta

Diseinua: Alex Oviedo

Lehenengo edizioa: 2023ko urria

LG BI 01227-2023

www.bizkaia.eus/argitalpenak

Idoia Carramiñana

Zer erremedio!

Irudiak: Iker Orueta

—Eta ez da beste txantxa bat izango? Beti ari dira ziria sartzen!

—Oraingoan ez —erantzun zuen temati—, arduratu nauen zerbait ikusi dut Kattaren begiradan.

—Baina...

—Mesedez, egin dezagun lo. Leher eginda nago gaur —eta hitza ahoan utzita argia amatatu zuen.

Isiltasun deserosoa sortu zen orduan, eta horrela, azken esaldi kezkarri harekin buruan dantzan, lo egiten saiatu nintzen. Baina, aspaldi sumatzen ez nuen sentsazio batek zeharkatu ninduen, bularreko ume makalena, eta iluntasunean bakarrik ezkututzen omen diren mehatxuak sentitzen hasi nintzen: hontz erraldoi

bat apalategitik begira, armairuan zain zeuden otso-letagin zorrotzak, edo ustekabeen orkatilak, izaren babesetik kanpo ahaztuta, laztantzen dizkizuten esku hezurtsuak. Hainbeste edari energetiko nire zainetatik korrika, begirik ezin itxi nengoen, eta gainera maskuria lehertzeko zorian. A ze estutasuna!

Uste dut gau hartan ordu gehiago eman nuela esna lo baino. Hurrengo egunean, berriz, beranduago arte gelditu nintzen ohean, eta jaikitzean ikusi nuen Martinek alde egin zuela. Komunetik pasatu nintzen sukaldeko eskailerak jaitsi aurretik, eta, begiak makarrez beteta eduki arren, han antzeman nituen: “Horiek bai festarako begi-zulo ederrak!”, neure buruari esan nion ispiluari begira. Aurpegia garbitu eta, beste barik, betiko ibilbideari ekin nion. Sukaldean sartu eta hor zegoen, ohi bezala, telebistaren aurrean zereal-bola hartuta, *Doraemon* ikusten. Valentzieraz bazegoen ere, nahiko ondo ulertzen nuen, eta xelebrea zen niretzat bikoizketa desberdinarekin entzutea. Beraz, baso bat ur eskuetan bere ondoan eseri nintzen.

—Zera... Azalduko didazu zer gertatu zen atzo, bada?

—Grfssñam zanpglup...

—Martin! Ez zaitetz izan nazkagarria, motel!

—Neska, gosaltzen ari naiz ggfrfrfrhsj...

Lo asko ez egitearen ondorioz, ez nuen bururik Martinen zurrutadak eta urrungsk deszifratzeko. Beti gauza bera egiten zuen, hitz egiten hasi ahoan zuena murtxikatzen amaitu gabe.

Ni oso txikia nintzela banandu ziren gurasoak. Ez dut ezta gogoratzen ere. Normalean amarekin bizi naiz Bilbotik oso gertu dagoen herrixka batean. Udak, ordea, Valentzian igarotzen ditut, aita bertan bizi baita emazte berriarekin eta elkarrekin izan zuten semearekin, Martin. Beraz, bai, Martin nire nebaordea da. Ni baino bi urte gazteagoa da, eta ez du ezertan nire antza, baina, tarteka bada ere, ondo moldatzen gara elkarrekin. Bihurri samarra da bera eta ni pitin bat beldurti. Martinek esango luke kakati hutsa naizela, baina bera ondoan izanda eta, halabeharrez, kemendu egiten naiz.

—Jainko maitea! A ze begi-zulo dotoreak!

—Hori bai dela animatzea, *xiquet*! —halako txorakeriak ez nizkion kontuan hartzen. Hala eta guztiz ere, ume mukitsu lotsagabe hori estimatzen nuen, barru-barruan bazen ere.

—Martin, nik ere ikusi nion aurpegia Kattari... —jarraitu nuen esaten.

—Erabat itxuragabeturik, baietz?

—Bai, baina uste nuen bere antzerki-dohainak erabiltzen ariko zela. Badakizu, aktore bikaintzat jotzen du bere burua.

—Bai eta atzokoa bere antzezpenik onena izan zela uste dut.

—Onegia, ez? Edo, uste al duzu...

—Zer?

—Ezer ez. Sineskeriak baino ez dira.

Ia erreakzionatzeko astirik izan gabe, Martinek gainera bota eta ahoa estali zidan eskuarekin.

—Babo horrek! —lortu nuen garrasi egitea azukre-zatiz zikinduriko bere hatzen artean —ikaratu egin nauzu!

- Barkatu, baina ez aipatu berriro hori.
- Zein?
- Ez dut esango ba!
- Ados. Ez dakit ziur zer, baina ez dut errepikatuko.

Urduri samar jartzen hasi nintzen; izan ere, nik ez dut magian sinisten, edo ez dut sinistu nahi behintzat. Baina Martin eta haren ama beti ari dira hitz egiten energiaz, espirituez, arimei trabarik egin behar ez zaiela, eta blablabla amaigabe bat. Egun batean, zehazki zazpi aldiz jarraian doministiku egin nuenean, horrek familiari zoritxarra ekarriko zion atari bat ireki zezakeela esan zuen. Egia esan, aitak eskaileretan estropezu egin eta bihurtura bat izan zuen belaunean. Kasualitatea? Batek daki, baina berak nire aura garbitzea erabaki zuen intsentsu-makilatxo batzuk erretzen eta haien kea nire inguruan zabaltzen. Ezin ezetz esan eta, tira.

- Ea, Martin, serio hitz egingo dugu?
- Neska, niretzat hauek kontu serioak dira.

—Bai, ulertzen dut —ulerbera-irudia egiten saiatu nintzen—. Orduan, esango didazu behingoz zer izan zen atzoko hori guztia?

Nik ere banuen eremuan kontatzen zen elezaharraren berri, hondartzan bizi den ustezko deabru baten inguruan, baina haurrak beldurtzeko ipuina zelakoan nengoen. Hala ere, ez nion garrantzi gehiagorik eman nahi. Gau hartan, udan bakarrik eta hondartzan antolatzen den musika-dantzaldi izugarria ospatzen zen. Eta, are gehiago, aitak itzulera-ordurik gabe irtetzeko baimena emango zigun gau bakarra izango zen. Ez genuen aukera hori alferrik galtzerik!

—Ezin duzu ulertu. Ikasturte osoa daramagu mitologiarekin gora eta behera, baina Kattak eta besteek uste dute brometan aritzeko zerbait dela. Halere, nik dakit kontuz ibil behar dugula.

—Bo, jakin jakin, Martin... Fededuna zara arlo horretan. Besteak, berriz, ez.

—Horretan datza arazoa, hain zuzen.

Oraindik gosaria bukatu barik, Martin aulkitik jaiki eta egongelako apalategirantz abiatu zen. Hantxe, liburu pila baten artean, hatzarekin bat seinalatu eta oso leunki, apaingarri hauskor bat balitz bezala, atera zuen. “*Espanta la por*” idatzita zegoen azalean.

—Esan nahi du “Beldurra izutu”. Hemen azaltzen dira hamaika mito eta sinesmen. Baita Euskal Herrikoak ere.

—Benetan? —burua biratu nuen hobeto ikusteko zer liburu zen hori.

—Ez hori bakarrik. Hemen ere maldizioak desagerrarazteko eta horiei aurre egiteko erremedioak esplikatzen dira.

Hori azaltzen ari zela, bazirudien ahotsa eten egingo zitzaiola une batetik bestera. Ez nekien ondo zer pentsatu ezta zer erantzun ere. Esaldi lasaigarriren bat bota nahi nion, amak askotan esaten dizkidan bezalakoak. Eta haren bila hasi nintzen nire garuneko txoko guztietan barrena. Tik-tak, tik-tak. Baina ezer ez zitzaidan otutzen. Ni ere beldurtzen hasi ote nintzen?

—E... Ba... Hondartzarajoangogara? Eguraldiederradagokan-

poan —totelka eta oso azkar hasi nintzen hizketan, hortik atera nahian. Baina orain, benetan, berdin zitzaidan aurreko gauean gertatutakoa. Hura ahaztu eta Martin bere onera etortzea nahi nuen, eta, baita ere, zain genuen gau luzean pentsatzea. Supituan Martinek bere jarrera erabat larriagotu zuen. Begiak altxatu eta gakorik asmatu izan balu bezala, hitz egiten hasi zitzaidan, baina oso tonu dentso eta aztoragarrian.

—Kattak ez du jeinu gaiztoan sinisten, eta hori izan da akatsa. Atzo, hondartzako arrailduratik sartuko zela erabaki zuenean, ni saiatu nintzen ohartarazten, baina, nola ez, ez zidan kasurik egin.

Hau bai *too much* niretzat! Atzotik kontatzeko eskatzen nion hori baina dagoeneko entzun nahi ez nuena azaltzen hasia zen Martin, eta jada, ez zegoen atzera-bueltarik.

—Begira, hemen azaltzen da: badirudi beldur diren haurrek ez dutela inoiz ikusiko haitzulo horretan bizi den bidutzia. Baina ez du balio harengan ez sinesteak; izan ere, harengan sinesten ez dutenak munstroak berak bahitu egingo ditu.



—E...eta orduan? —lortu nuen esatea flipa-flipa eginda.

—Ba, gaur goizean esnatzean mezu bat utzi diot Kattari eta oraindik ez du irakurri.

—Tira, agian lo dago oraindik —bera ez ezik, nire burua ere lasaitu nahian erantzun nion.

—Eta bere surf eskola galdu?

—Egia, ez dut uste... Deituko al diogu batera?

—Ez, ez ibili arinegi —azkar-azkar eta zakarki esan zuen, telefonoa hartzera mugitu baino lehen—, itxarongo dugu festara arte.

Festara arte? Festara arte? Hau bai aztikeria! Nola itxarongo genuen egun osoa jakiteko Katta ondo zegoen ala ez?

—Horixe bakarrik behar genuen! —baina Martinek ez zidan erantzunik eman. Bat-batean urduri zirudien mugikorrari begira.

Eta momentu batez iruditu zitzaidan ez ote ari zen Martin esajeratzen ni beldurtzeko asmoz. Zerbaitek egin zidan klik

buruan: Kattaren antzerkitxoa, Martinen jarrera iheskorra, horrenbesteko isiltasuna. Eta, Kattarekin adiskidetuta bazegoen? Eta, dena neskato baldar eta izutiaz, hau da, nitaz barre egiteko konplota bazen? Martin hitz egiten hasi zen berriro, eta nik ezin nuen begi onez ikusi. Baina haren etxean nengoen, haren herrian. Hori Martinen eremua zen eta ni, berriz, kanpotarra. Akaso sinestea ez zen egin nezakeen gauza bakarra? Eszeptizismoa gorabehera, eta zer aurpegi jarri jakin gabe, galdetu nion:

—Eta horretarako erremediorik ez dager zure liburu horretan?

*Idoia Carramiñanaren ipuin honi amaiera gehitu nahi izanez gero, hurrengo orrialdeko oinarriak irakur itzazu.

BizkaIdatz Txikia 2023-2024 Haur eta Gazteentzako Literatura Sariaren
X. edizioaren oinarri arautzaileak
Idoia Carramiñana Miranda idazlearen
“ZER ERREMEDIO!” izenburuko kontakizuna

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultur eta Kirol Sailak, Bizkaiko Foru Liburutegiaren bitartez, BizkaIdatz Txikia haur eta gazteentzako literatura sariaren bidez, literatur sorkuntza bultzatu eta sustatu nahi du gure lurraldeko eskola-umeen artean.

PARTE-HARTZAILEAK:

Bizkaiko udalerriren batean, edozeinetan, kokatutako ikastetxeren batean ikasten ari diren 16 urte beteta dituzten arteko haur eta gazteek har dezakete parte lehiaketa honetan; horretarako, jatorrizko eta banakako lanak aurkeztu beharko dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, honako lau kategoria hauetako batean:

HAUR kategoria, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. ikasturteetako ikasleak (I. taldea).

HAUR kategoria, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. ikasturteetako ikasleak (II. taldea).

GAZTE kategoria, Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. ikasturteetako ikasleak (III. taldea).

GAZTE kategoria, Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. ikasturteetako ikasleak (IV. taldea).

Eskatutako betekizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean egiaztatu behar dira

Ezin izango dira aurkeztu aurtengo BizkaIdatz Txikia 2023-2024 Haur eta Gazteentzako Literatura Sariaren X. edizioera honen aurre-aurreko edizioan epaimahaiak haur edo gazteen kategorietako batean, edozeinetan, gaztelaniazko zein euskarazko modalitatean saritutako haur eta gazteak.

Lehiaketan parte hartzean lehiaketaren oinarriak oso-osorik onartzen dira.

KONTAKIZUNEN EZAUGARRIAK:

1.) Sari honetan parte hartu nahi duten haurrek eta gazteek gaur egungo idazle batek proposatutako bi hastapenetako bataren bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira, bata gaztelaniaz eta besteak euskaraz; beraz, hasiera horretara, haren pertsonailetara eta egoeretara egokitu behar dira kontakizunak.

Euskarazko modalitatean parte hartuz gero, Mónica García Saiz idazlearen “ZER ERRE-MEDIO!” izenburuko kontakizunaren hasiera jarraitu beharko da.

2.) Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake.

Euskarazko edo gaztelaniazko kontakizunak aurkez ditzakete, eta, epaimahaiak horrela erabakitzen badu, atal bietan izan daitezke irabazle.

Euskarazko kontakizunaren hasiera aukeratuz gero, kontakizunak euskaraz jarraitu behar izango du; gaztelaniazkoa aukeratuz gero, berriz, gaztelaniaz.

3.) Kontakizunen luzera gutxienez 4 orrialdekoa eta gehienez ere 5 orrialdekoa da. Eskuz idatzita egon beharko dira, letra argiarekin, edo ordenagailuz idatzita, “Times” edo “Arial” letra-tipoarekin, 12ko tamainarekin eta lerroarte bikoitzarekin, DIN A4 tamainako orrietan.

Kontakizunei izenburua jarri beharko zaie, zenbakia jarrita izango du orrialde guztietan, baina ez dira sinatuko. Egilea identifikatu gabe aurkeztu beharko dira.

Kontakizunek banakako lanak izan behar dute, hau da, egile bakar batek idatziak.

Koautoretza bidez idatzitako kontakizunen bat aurkezten bada, kontakizun hori ez da onartuko literatura lehiaketan.

AURKEZTEKO LEKUA:

Deialdi honetan aurkezteko eskabideak, literatura-kontakizunekin batera, aurrez-aurrez aurkeztu ahal izango dira honako bide hauetakoren bat erabiliz:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Orokorra – Laguntza Bulegoan, Diputazio kaleko 7zk., Bilbon, dagoena. Aurrez aurreko arreta aurretiazko hitzorduarekin ematen da. Hitzordua eskatzeko, 94 406 8000 telefonora dei daiteke edo hurrengo webgunearen bitartez, herritarrentzako-arreta atalean: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezartzen diren bulegoetan (beste erregistro publikoak eta Posta-bulegoak).

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezteko: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

AURKEZTEKO EPEA:

Eskabideak, literatura-kontakizunekin batera, aurkezteko epea oinarri arautzaileak eta deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta **2024ko otsailaren 9an amaituko da**, biak barne.

AURKEZTEKO ERA:

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabideak eredu ofizialetera egokitu beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri eskabidearen eredu ofizialak, bete eta aurkeztu ahal izateko: <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Gainerako kasuetan (paperezko formatuan aurkeztutako eskabideak) eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta webgunearen bidez eskuragarri:

<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>

Kasu guztietan, kontakizunaren egilearen (adingabea) guraso-ahala edo legezko tutoretza duenak sinatu beharko ditu eskabideak: amak, aitak edo legezko tutoreak.

Ikastetxe batek bere ikasleek idatzitako literatura-kontakizunak aurkezten baditu, kontakizun bakoitza banakako eskaerarekin batera aurkeztu beharko da, amaren, aitaren edo legezko tutorearen datuekin beteta, eta pertsona horrek sinatuta.

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Parte-hartzaileak idatzitako kontakizunaren ale bat.
- Eskabidea ordezkari bidez aurkeztuz gero, ordezkari zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatuta beharko da.

SARIAK:

Bi modalitateetako (euskara eta gaztelania) lau kategorietako bakoitzean, irabazleei tablet eta diploma bana emango zaie.

Gainera, irabazleek ikasten duten ikastetxeek material didaktikorako opari-txartel bat jasoko dute irabazten duten literatura-kontakizun bakoitzeko.

Saritutako lanak sarirako prestatutako edizio batean argitaratuko egingo dira.

Irabazleei sariak banatzeko ekitaldi bat egingo da. Irabazleei horren berri emango zaie behar bezala, baita irabazleen ikastetxeei ere.

EPAIMAHAIA:

Sariak emateko, deialdi honen ondorioetarako izendatutako epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahai honek aztertuko ditu eparean barruan aurkeztutako eskabideak, eta haren iritziz modalitate bakoitzeko kategoria bakoitzean, euskaraz edo gaztelaniaz, puntuaziorik altuenak lortu dutenei emango dizkie sariak. Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, eta puntuok erabakitzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan: Proposatutako kontaktizunari emandako jarraipena eta harekiko batasuna (4 puntu, gehienez), Kalitate literarioa (3 puntu, gehienez) eta istorioaren garapenean izandako sormena (3 puntu, gehienez).

Edizio honetan hurrengo epaimahaikideek osatuko dute epaimahaia:

- Gaztelaniazko modalitatean: Mónica García Saiz, Andoni Abenójar Martínez de Eulate eta Borja Alonso Vaamonde.

- Euskarazko modalitatean: Idoia Carramiñana Miranda, Idoia Barrondo Etxebeste eta Juan Ramón Madariaga Abaitua.

Ordezko epaimahaikideek: Marta Goikoetxea Nagore eta David Tijero Osorio

EBAZPENA:

Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaie deialdi honetarako eskabidea aurkeztu duten pertsoneri, salbu eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu dutenei, egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie.

JABETZA INTELEKTUALA:

Saria banatzen denetik aurrera, hurrengo bost urteetan Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko.

DEIALDI HONI BURUZKO AHOALKULARITZA ETA INFORMAZIO OSOA:

Foru agindu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak, Bizkaiko Foru Liburutegiaren bidez. Horretarako, helbide hau dago web orrian: <https://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea>

Oinarri arautzaileak eta deialdi honi buruzko informazio guztia eskuragarri dago Bizkaiko Foru Liburutegiaren webgunean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan:

<https://www.bizkaia.eus/foruliburutegia>

<https://www.ebizkaia.eus>